*“Los órganos encargados de **los procedimientos de aprobación, modificación o revisión de los instrumentos de planificación territorial o urbanística** que afecten al despliegue de las redes públicas de comunicaciones electrónicas **deberán recabar el oportuno informe del Ministerio de Industria, Energía y Turismo**. Dicho informe versará sobre la adecuación de dichos instrumentos de planificación con la presente Ley y con la normativa sectorial de telecomunicaciones y sobre las necesidades de redes públicas de comunicaciones electrónicas en el ámbito territorial a que se refieran.*

***El referido informe preceptivo será previo a la aprobación del instrumento de planificación de que se trate y tendrá carácter vinculante en lo que se refiere a su adecuación a la normativa sectorial de telecomunicaciones, en particular, al régimen jurídico de las telecomunicaciones establecido por la presente Ley y su normativa de desarrollo, y a las necesidades de redes públicas de comunicaciones electrónicas, debiendo señalar expresamente los puntos y aspectos respecto de los cuales se emite con ese carácter vinculante.***

*El Ministerio de Industria, Energía y Turismo emitirá el informe en un plazo máximo de tres meses. Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 83.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, transcurrido dicho plazo, el informe se entenderá emitido con carácter favorable y podrá continuarse con la tramitación del instrumento de planificación.*

***A falta de solicitud del preceptivo informe, no podrá aprobarse el correspondiente instrumento de planificación territorial o urbanística en lo que se refiere al ejercicio de las competencias estatales en materia de telecomunicaciones.***

*En el caso de que el informe no sea favorable, los órganos encargados de la tramitación de los procedimientos de aprobación, modificación o revisión de los instrumentos de planificación territorial o urbanística dispondrán de un plazo máximo de un mes, a contar desde la recepción del informe, para remitir al Ministerio de Industria, Energía y Turismo sus alegaciones al informe, motivadas por razones de medio ambiente, salud pública, seguridad pública u ordenación urbana y territorial.*

*El Ministerio de Industria, Energía y Turismo, a la vista de las alegaciones presentadas, emitirá un nuevo informe en el plazo máximo de un mes a contar desde la recepción de las alegaciones. Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 83.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, transcurrido dicho plazo, el informe se entenderá emitido con carácter favorable y podrá continuarse con la tramitación del instrumento de planificación. El informe tiene carácter vinculante, de forma que si el informe vuelve a ser no favorable, no podrá aprobarse el*





---

Esp.-kodea: 2015SAPL0007

---

*correspondiente instrumento de planificación territorial o urbanística en lo que se refiere al ejercicio de las competencias estatales en materia de telecomunicaciones.”*

**CONSIDERANDO** que en la tramitación seguida para la aprobación de la Ordenanza Municipal de Redacción de Proyectos y Ejecución de Obras de Urbanización no se ha recabado el informe del Ministerio de Industria, Energía y Turismo, en lo que respecta al Anexo 13 contenido en la misma.

**CONSIDERANDO** que el artículo 63 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común dispone la anulabilidad de los actos que incurran en cualquier infracción del ordenamiento jurídico, la cual conlleva la retrotracción de actuaciones al momento previo a la comisión de la infracción.

**CONSIDERANDO** que, siendo el acto recurrido el Anexo 13 de la Ordenanza Municipal de Redacción de Proyectos y Ejecución de Obras de Urbanización, con lo que respecto al resto de la ordenanza es de aplicación lo dispuesto en el artículo 66 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, que dice que:

*“El órgano que declare la nulidad o anule las actuaciones dispondrá siempre la conservación de aquellos actos y trámites cuyo contenido se hubiera mantenido igual de no haberse cometido la infracción.”*

**CONSIDERADO** que el acto recurrido fue dictado por el Pleno de la Corporación del Ayuntamiento de Arrasate, quien acordó aprobar inicialmente la Ordenanza –incluido el Anexo 13– y someterla a información pública, con la siguiente advertencia:

*“De conformidad con lo establecido en el último párrafo del citado artículo 49 de la Ley 7/1985, en el caso de que en el período de exposición pública no se presente ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente aprobada la Ordenanza.”*

No habiéndose presentado ninguna reclamación ni sugerencia dentro del periodo de exposición pública, fue la Junta de Gobierno Local quien en su reunión de fecha 20 de octubre de 2014 constató que la Ordenanza quedaba definitivamente aprobada, para su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Esta Comisión de Urbanismo propone al Pleno de la Corporación la adopción del siguiente acuerdo:

- Dejar sin efecto la aprobación del Anexo 13 de la Ordenanza Municipal de Redacción de Proyectos y Ejecución de Obras de Urbanización, “telefonía y telecomunicaciones”, y retrotraer el procedimiento administrativo a la fase de reclamación del informe preceptivo al Ministerio de Industria, Energía y Turismo en los términos en que lo requiere el artículo 35 de la Ley 9/2014, de 9 de mayo, General de Telecomunicaciones.”



Esp.-kodea: 2015SAPL0007

## **6.- 2015EKO AURREKONTUAN KREDITUAK ALDATZEKO ESPEDIENTEA ONTZAT EMATEKO PROPOSAMENA, 2014 URTEKO EKITALDIKO LIKIDAZIOAREN SOBERAKINEKIN.**

Udal Plenoak, aho batez, Ogasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Tokiko Gobernu Batzarrak, 2015eko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Udalaren 2014ko aurrekontuaren likidazioa onartu zuen. Akordioarekin batera, diruzaintzako gerakinaren kontura, 3.049.666,23 €ko kreditu txertaketa onartu zen, eta oraindik ere gastu orokorretarako doitutako diruzaintzako gerakina erabiltzeke 2.452.572,44 €an zenbatu zen.

Onespenerako diktamenean Ogasun Batzordeak adierazten zuen zenbait proiektu eta ekintzetarako erabiltzeko borondatea (beste batzuen artean, Arrasateri buruzko bideoaren kontratua, enplegu saileko laguntzen programak diru gehigarria, lan soldaten murrizketei aurrei egiteko funtsa sortzea, 2015ean mailegu berriak ez eskatzeko helburua). Dena den, soberakinaren banaketa edo erabilera, era ordenatuan, erabakitzeko, Udaleko batzordeburu eta sail guztiei eskatu zaie proposamenak aurkezteko, gero Ogasun Batzordean aztertzeko.

Horretarako emandako epearen barruan, zenbait eskari jaso dira Kultura, Pertsonal, Hirigintza, Enplegua, Kirola eta Zerbitzuak sailetatik, eta eskari guztiak onartuz gero, bere eragin ekonomikoa 1.823.630ekoa izango litzateke. Eskarien artean, Bere mementoan Ogasun Batzordeak aurreikusten zuenaz gain, proiektu berriak sartu dira, eta garrantzitsuenak ondorengoak:

- Zalduspe Urbanizazioaren kontu-saila, sinatu beharreko hitzarmen baterako kontu-saila 180.000 €an gehitzea.

- Kirol azpiegituretan inbertsioetarako (batez ere Iturripe itoginak konpontzeko eta Musakolako igerilekuen klimatizadorea aldatzea) kontu-saila 262.400 €an handitzea.

- Zerbitzuetako Sailak proposatutako zenbait proiektu (esanguratsuenak Erlojuaren eraikinerako egokitze proiektua idazteko, artxibo berrirako artxibadoreak eta altzariak, Asfaltatuetarako kontu-saila gehitzea, Makatzenan umeen parke berri bat egitea, umeen parke bat estaltzeko proiektua eta obrekin hastea, urte anitzeko prozedura erabiliz) gauzatu ahal izateko 585.700 €ko gastu gehikuntza onartzea.

Eskari horiek guztiek, osotasunean onartuz gero, erabili gabe geldituko litzatekeen gerakina 628.942,44€koa izango litzateke. Horrek esan nahiko luke 2015eko aurrekontuak gauzatuko balira aldaketarik gabe hasieran onartutako kopuruai buruz, beharrezkoa izango litzatekeela ekitaldian mailegu berri bat eskatzea, gutxienez, 439.014,36 €an.



---

**Esp.-kodea: 2015SAPL0007**

---

Mailegu berriaren beharrari dagokionez, kontuan izanik gastuen inbertsio atalean egindako zenbait esleipenekin ekonomia esanguratsuak lortu direla, 700.000 € inguru, eta sarreratan ere, lehenengo lauhileko exekuzioak ematen du, ezusteak salbu, ekitaldi itxieran alde positiboak lortu daitezkeela. Hori horrela izanik, Ogasun Batzordeak onargarria ikusten du 2014ko likidaziotik sortutako gerakina erabiltzea planteatu den kopuruan, ulerturik 2015eko aurrekontuaren exekuzioak ahalbidetuko duela itxiera orekatua mailegu berriak eskatu gabe.

Bestalde, bai kreditu txertaketekin eta baita oraingo 2014tik sortutako gerakinaren erabilerarekin 2015 ekitaldiko Aurrekontuaren egonkortasunaren eta gastu erregelaren helburua betetzeari buruz, Kontu-hartzaileak ondokoa informatzen du:

Udalbatzak, 2014ko abenduaren 18an egindako bilkuran, 2015eko Aurrekontu Orokorrak onartu zituenean, 1/2013 Foru Arauak, Toki entitateen Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Iraunkortasunaren alorretan finantza Tutoretzaren eskumena garatzen duena, eta 2014ko azaroaren 18an Diputatuen Kontseiluak onartutako jarraibideek 2015 ekitaldirako finkatutako helburuak, aurrekontu egonkortasuna, zorra eta gastu erregela helburuei dagokienez, Udalak bete bazituen ere, 2014ko kontuen itxieraren testuinguruan hartutako akordioekin (kreditu txertaketa eta orain proposatzen den gerakinaren erabileraz), zorraren helburua izan ezik, gainontzeko helburuak, egonkortasuna eta erregela gastua ez lirateke beteko. .

Beraz, Gipuzkoako Toki Entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzeko 2015rako jarraibideen 1. eta 3. erregelek ezarritakoaren arabera, Arrasateko Udalak eta bere Erakunde Autonomoak (Iturbide Egoitza), egonkortasunaren helburua eta gastuaren erregela ez dutenez betetzen, finantza eta ekonomia plana egin eta onartu beharko lukete, egoera urtebeteko epean zuzenduko dela bermatuko lukeen plana, hain zuzen ere.

Hala ere, zenbait kasutan (diruzaintzaren gerakinaren erabilera horien artean) Udalbatzarrari Kontu-hartzailetzak izenpetutako komunikazio bat helarazi dakioke planaren ordeztu, Arrasateko Udal Administrazioaren finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatzen duen txosten batekin batera.

Hori dela eta, kontuan hartuta aipatu helburu legalak ez betetzearen arrazoiak diruzaintzaren gerakina erabiltzetik datozela, eta, ezuste handiak izan ezik, hurrengo urteetarako ez dela ikusten Udalaren finantza iraunkortasuna desagertzeko arrisku handirik, 2014 eta 2015ean zorraren maila oso baxuak baitira (%9,98 eta %7 bateratutako baliabide arruntei buruz), ezarritako mugatik (%95) oso urruti, eta egonkortasunari dagokionez, 2014 ekitaldiko likidazioan 4.789.952,68 euroko marjinarekin bete dela ezarritako muga, eta 2015 ekitaldirako ere, gerakinaren erabileragatik izango ez balitz, beteko litzatekeela helburu legala.

Beraz, ez da plan ekonomiko-finantzarioa onartzeko beharrik ikusten eta, bere ordeztu, Udalbatzarrari komunikatu behar zaio 2014ko ekitalditik sortutako diruzaintzako gerakinaren erabileragatik gertatu dela egonkortasunaren eta gastu erregela gastuaren helburuak ez betetzea, aldi berean, Arrasateko udal administrazioaren finantzari buruzko jasangarritasuna, ezuste edo aldaketa handiak izan ezik, bermatuta dagoela adierazita utziz.



Esp.-kodea: 2015SAPL0007

Hori guztia kontuan hartuta eta kreditu aldaketari buruz jasotako eskariak Ogasun Batzordean aztertu eta gero, onargarriak direla iritzirik, aho batez, ondorengo akordio hartzea proposatzen dio Udal Plenoari:

1.- 2015 ekitaldiko aurrekontuaren kreditu aldaketa espedienteari hasierako onespena ematea, kreditu gehigarrien erregimenean, ondorengo laburpen numerikoarekin:

#### A- GASTU GEHIKUNTZA

Kap.II - Ondasun eta Zerbitzuen erosketak	29.000,00 euro
Kap.IV-transferentzia arruntak	51.530,00 euro
Kap. VI – Inbertsioak	1.028.100,00 euro
Kap. VIII – Finantza Aktiboen Aldaketak (Pertsonalerako funtsa)	715.000,00 euro
GASTU GEHIKUNTZAK GUZTIRA	1.823.630,00 euro

#### B – FINANTZAKETA –

B.1 - 2014KO DIRUZAINTZAKO GERAKINA 1.823.630,00 euro

2.- 2015eko aurrekontuen exekuzio oinarrien 14.artikuluaren aldaketa onartzea, urte anitzeko konpromisoak onartzeko Tokiko Gobernu Batzarrari baimendutako kontu-sail eta proiektu zerrendan “Umeen parke bat estaltzeko obrak” kontu-saila sartuz.

3.- Aipatu espedientea 15 laneguneko epean jendaurrean jartzea, interesdunek aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

4.- Jendaurreko epean ez bada inolako erreklamaziorik aurkezten, hasierako akordioa behin betikoz onartuta kontsideratzea.”

5.- 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua eta Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluak 2013ko otsailaren 19an onartutako jarraibidearen 3. arauak ezarritakoaren arabera, Udalbatzarrari komunikatzen zaio 2015eko aurrekontuek, kreditu txertaketa eta kreditu gehigarri hauek onartu eta gero, ez dituztela betetzen egonkortasun eta gastu erregelari buruzko helburuak baina diruzaintzako gerakina erabili delako, komunikazio honek ekonomia eta finantza-plana ordeztuko duela adieraziz.”



---

Esp.-kodea: 2015SAPL0007

---

## **7.- ARRASATEKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 1. ALDAKETA ONTZAT EMATEKO PROPOSAMENA (2014RBAR0012).**

Udal Plenoak, aho batez, Ogasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koa, bere 8.1 artikuluan ezartzen du diru-laguntzak ezartzea proposatzen duten Herri Administrazioetako organoek edo beste edozein erakundek, aldez aurretik, hura aplikatzean lortu nahi dituzten helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko behar izango duten epea, aurreikusitako kostuak eta horien finantzabideak zehaztu beharko dituztela Diru-laguntzen Plan Estrategiko batean. Era berean, lege horren azken xedapenetako lehenengoak ezartzen du aipatu artikulua oinarrizkoa dela eta Herri Administrazio guztiek aplikatu behar dutela.

Horregatik guztiagatik, Udal Plenoak, 2014ko martxoaren 19an egindako bilkuran erabaki zuen 2014/2015 epealdirako Arrasateko Udalaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzea, Arrasateko Udalak eta bere Erakunde Autonomoak ematen dituzten diru-laguntza programa eta lerro guztiak jasotzen zituena, bakoitzean ondorengo aspektuak zehaztuz:

- Lortu nahi diren helburuak.
- Diru-laguntzaren modalitatea.
- Nori dagoen zuzendua programa edo lerroa
- Zenbatekoa
- Aurrekontu aplikazio

Orain, baina, 2015 urterako 2 diru-laguntza lerro berri onartu ditu Udalak, biak ere Enplegu Saitetik proposatuak: Arrasateko titulatu berrientzako beka programa; eta Arrasateko enpresetan herriko langabeak kontratatuzeko laguntza programa. Ondorioz, bi lerro hauek ere txertatu behar dira Udalaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoan, goian aipatutako aspektuak zehaztuz.

Proposamena ikusi ondoren, Ogasun Batzordeak hauxe proposatu dio Udal Plenoari:

- 2014/2015 epealdirako Arrasateko Udalaren Plan Estrategikoaren 1. aldaketa onartzea (Ikus I. eranskina).”



Esp.-kodea: 2015SAPL0007

## **8.- ARRASATEKO UDALA, DEBAGOIENEO ETA DEBABARRENEKO MANKOMUNITATEEN ARTEAN HITZARMENA SINATZEKO PROPOSAMENA, AKEI-KO ZABORTEGIA ITXI OSTEKO MANTENTZEAREN ETA KONTROLAREN INGURUKOA (2015IING0018)**

Udal Plenoak, aho batez, Ingurumen Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“1995eko urtearen amaieran itxi egin zen Akeiko errauskailu, eta aldi berean industria-instalazio horren ondoan dagoen Akeiko zabortegian hondakinak botatzea amaitu zen. Geroztik hainbat jarduerarekin dira Akeiko zabortegia egoki mantentzeko, eta azkenean EJ-ko Ingurumen Sailburuordetzak ebazpen – proposamena igorri du zeregin horiek antolatzeko eta Ingurumen – kontrola ziurtatzeko.

Ebazpen proposamen horretan edota behin betiko ebazpenean ezarritako zereginak betetzeko Arrasateko Udalak, Debagoieneko Mankomunitateak, eta Debabarreneko Mankomunitateak hitzarmen proposamena adostu dute.

Gai aztertu ondoren, zera proposatzen dio Ingurumen Batzordeak Udalbatzarrari:

- AKEI-ko zabortegia itxi osteko mantentzearen eta kontrolaren arduraren inguruan Arrasateko Udala, Debagoieneko eta Debabarreneko Mankomunitatearen arteko lankidetzaz hitzarmena sinatzea.(II. eranskina)
- Alkate-Lehendakariari, edo legez ordezkatzeko duen Alkateordeari, ahalmena ematea goian aipatutako hitzarmena sinatzeko.”

## **9.- ALKATETZAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI HARTZEA, PLENOAREN AZKEN BILKURATIK GAURDAINO ARTEKOAK**

Udal Plenoak Alkateak emandako dekretuen berri hartu du, Plenoaren azken bilkuratik gaurko bilera honetako deialdia egin zen egunera artekoak (2015ko maiatzaren 8ra arte) (Ikus III. eranskina)

## **10.- ESKARIAK ETA GALDERAK**

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (LEHENDAKARIA):** Aipatzea aurreko Bozeramaile Bileran erabaki ginun 4.000 €ko dirulaguntza ematea Nepalari, proiektu konkretu batentzako, depuradura planta batentzako eta bueno, adostasun guztiarekin onartu genuen. Eta gaurkoa azken Plenoa denez, bukatu aurretik legealdi honen balorazio txiki bat eta aipamen batzuk egin nahi ditut.



---

**Esp.-kodea: 2015SAPL0007**

---

Momentu hau aprobetxatu nahi dut, lehenengo eta behin, eskerrak emateko, herritarrei, udal langileei, parte hartu duzuen oposizioko eta Gobernu kideei. Neurri batean denon artean lortu dugu gauzak aurrera ateratzea eta azken finean Arrasate hobetzea.

Tokatu zaigun legealdia, ekonomiaren ikuspegitik, bereziki gogorra izan da. Lau urteok gertakari ekonomikoz jositakoak izan dira, loteriarena salbu, beste guztiak denontzako notizia gordinak izan dira. Egoera zaila izanda ere, baina, pertsonen arazoei erantzuteko ardurari lehentasuna emanaz Udalean indarrak atera ditugu.

Gainera, 2011n Udalean geneukan zorra nabarmen jaitsi dugu. Hori ere ganoraz egindako kudeaketari esker izan da.

Halaber, ezberdinen arteko akordioa lortzen ere saiatu gara, horixe izan da gure beste erronketako bat. Eta hari horri helduta, arian-arian, legealdi honetan ekimen garrantzitsuak aurrera atera ditugu: Proiektuak, Enplegu plana, Plan Orokorra, TAO, Hondakinen akordioa, Euskararen Elkarlan Hitzarmena eta abar luze bat.

Eta ezberdinen arteko hariari tiraka, beste ur sakonago batzuetan ere murgiltzera atrebitu gara: Bizikidetzan eta gatazkaren konponbidean Arrasaten ere pausotxoren bat ematen hasteko, saiatu gara planteamendu bat egiten oinarritzkoak diren puntuok lantzeko:

- Gatazkaren konponbiderako guztien arteko elkarrizketa,
- Herritarren parte hartzea,
- Egia osoa eta kontakizun bermea
- Akordio politikoak eta sozialak bultzatzea.

Pertsona guztien giza eskubideak, bake eta bizikidetzeta egoera egonkorra defendatu dugu, eta beraz, espetxe politikaren salbuespen egoerarekin amaitzea eskatu dugu, herri honetan gehiengoak aldarrikatzen duen bezala.

Baina, beste arlo batzuetan aurrera pauso garrantzitsuak eman ditugun arren, gai honetan ez dugu lortu eta garbi dago Arrasaten berriz ahalegindu beharko garela Bizikidetzaren tresna horri heltzen hasteko.

Beste proiektu eta asmo batzuk mahai gainean gelditu dira baina, bueno, bizitza ez da gaur bukatzen, eta aurrerantzean jarraitzen dutenek izango dute aukera aurrera egin eta adostasunak lortzeko.

Azkenik, hemen jarraitzen duzuei, baita jarraitzen ez duzuei ere; gure lankide izan zen Raquel Diaz ahaztu gabe, denei, bihotz bihotzez zorionak eman nahi dizkizuet eta,

Zorte on ibilbide berrirako.

Mila esker guztioi!"



---

Esp.-kodea: 2015SAPL0007

---

**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):** Eskerrikasko zuri ere Inazio, legealdi honetan azpimarratuko nuke, lehenengo esateko, izan dela legealdi bat aspaldiko partez behintzat baketsuena. Ez dugu eduki biolentzia biktimarik, errespetua izan da danon kontuan eduki dugu eta danok landu dugu. Eta horrekin batera normalizazio politikoa izan da legealdi honetan behintzat gure taldean, eta nik uste dut danen ikuspegitik eta hori ba horren zerera zuk be zerikusia handia daukazu zer horretan.

Gero gai danetatik, bi gai ados eta gainera oso garrantzitsuak aurrera atera diezenak, enpleguaren plana ikusita ze egoeretan tokau jakun bertako Arrasate kontuan edukita ezta? Eta gero bestea hondakinen bilketaren sistemari buruz zelako erueda, beste herri batzuekin konparatuta lortu dugun danon artean eta hori be herriak eskertzen duela. Eta herriandako eta bueno danen aldetik lana be oso gustora egin dugula. Esperientzia oso ona izan da eta bueno, hori gustauko neuke hurrengorako be, hala hau izan deixela ba pauso bat hurrengo legealdira behintzat hala jarraitzeko. Eta geroago eta bizikidetzari buruz danon arteko adostasun batera heltzea eta plan bat horri buruz jarraitzea izango zan hurrengo legealdiko lan bat geratzen dena hasteko behintzat lehenengotik hori eskatuko nuke.

**INAZIO AZKARRAGAUZAR (LEHENDAKARIA):** Eskerrik asko Juan Carlos.

**FRANCISCO GARCIA RAYA (PSE-EE):** Buenas tardes. Yo creía que esto lo íbamos a hacer en el siguiente Pleno, donde se aprueban las actas que creo que habrá otro Pleno. No entraba en mi guión ni esperaba que hoy se iba a hacer esta despedida por parte de todos, no? Por lo tanto, yo también, evidentemente, quería decir algunas cosas. Como todos sabéis, yo también me despido de este ayuntamiento después de muchos años, pero evidentemente, en nombre de mi grupo desearos a todos los componentes de esta corporación lo mejor. Decir que si alguien necesita algo, por nuestra parte nos tenéis a vuestra disposición y ha sido una legislatura evidentemente hay que calificarla como positiva en cuanto a la convivencia no? La mejor en todo el tiempo que yo conozco en este ayuntamiento. Pero bueno, yo creía que nos estábamos despidiendo, pero yo tengo que discrepar de algunas de las cuestiones que se han planteado evidentemente. No es cierto que este ayuntamiento haya luchado por los derechos de todos, han luchado por los derechos de algunos, no de todos. No de todos, hay que dejarlo ahí, y a eso si es a lo que tenemos que llegar tenemos que llegar por los derechos de todos no de algunos no de parte de todos.

En cuanto a la mesa de residuos, ha dicho Juan Carlos que hemos llegado todos a un acuerdo, todos no, algunos habéis llegado a un acuerdo, que será ejemplar en la medida que continué pero ahí sigue la coletilla, la amenaza del puerta a puerta. Ese es el acuerdo que han llegado ustedes, la coletilla de la amenaza del puerta a puerta, coletilla que nos llevara al puerta a puerta. Entonces son responsables de eso, pero son responsables en cuanto a la gestión de los residuos los responsables son ustedes por haber dejado a Bildu gobernar en la Diputación y llegar a lo que hemos llegado. Y eso es así, yo no quería llegar hoy a esto, pero como ustedes no sueltan una cosa y el otro suelta otra, pues no me queda mas remedio que decirlo y discrepar bien.

Dicho esto, lo que he dicho antes, yo es verdad que hemos intentado llegar a acuerdos de convivencia y que no han sido posibles evidentemente. Esos acuerdos de convivencia serán posibles cuando algunos den ciertos pasos que se niegan a dar. Cuando se den esos pasos llegaremos evidentemente a esos





---

Esp.-kodea: 2015SAPL0007

---

acuerdos, pero yo tengo esperanza de que se va a conseguir mas pronto que tarde seguramente se llegara ya estamos viendo casos de personas que se arrepienten que dicen que hacen ese es el camino, ese el camino cuando llegemos a ese camino no me cabe la menor duda que vamos a llegar a esos acuerdos a los que yo además deseo y a mi que se llegue por el bien de todos los por el bien de todos los vascos y por el bien de todos. Y nada, agradecer en primer lugar y sobre todo a los trabajadores, a los técnicos de este ayuntamiento, gente muy capacitada, muy buena, que los hay, muy buenos y muy capacitados, que hacen una gran labor que nos ayudan muchísimo y yo sobre todo a ellos quiero agradecerles el trabajo por lo menos conmigo han hecho y me han ayudado durante tantos años.

Y dicho lo anterior si alguien necesita algo de este grupo socialista no os quepa la menor duda que nos teneis a vuestra disposición.

**JOXE ETXEBERRIA (ARALAR):** Erronda zabaldu denez, esker mila Inazio plazer bat izan da zurekin lan egitea baita ere gobernu taldeari eta oposizioari ere.

Pacok dionari, bi aipamen sartu ditu, hondakinak eta bizikidetzak. Bizikidetzari dagokionez, ahalegina egon danean bizkarra arrimatzeko aukera egon zan, eta bueno, ez dut uste larregi arrimatu denik zentzu horretan beste polemiketan sartu gabe. Eta hondakinaren inguruan, adostasun bat hor dago Garitanok esan duen bezala eta adostasuna akordio bat dagoenean bere osotasunean dagoena irakurri behar da eta irakurtzen jakin behar da eta bueno konpromiso batzuk daude eta konpromisoak betetzen badira era batera izango eta ez badira betetzen ba beste era batera baina nik uste horretarako zuek ere bizkarra arrimatzeko aukera daukazuela eta nik uste arrimatu egin behar duzuela.

**MAIDER MORRAS (BILDU):** Arratsaldeon. Nik bakarrik eskerrak eman Inazio, oso alkate ona izan zara, bai maila pertsonalean eta bai lan mailan, uste dut asko ikasi dugula zutaz eta mila esker bihotzetik.

**INAZIO AZKARRAGAURIZAR (LEHENDAKARIA):** Eskerrik asko guztioi, eta bukatutzat emango dugu. Egongo da beste Pleno bat aktak onartzeko, baina bueno, pentsau dugu hau dela garrantzi gehiagoko Plenoa eta horregatik planteatu dugu Pleno honetan despedida moduan, baina hemen jarraituko dugu 13ra arte behintzat eta gogoia badago lanerako hor jarraituko dugu be bai.

Eskerrik asko.

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko 18:35etan amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jasoz.

Arrasaten, 2015eko maiatzaren 12an

IDAZKARIA

Iñigo Garitano Larrañaga

LEHENDAKARIA

Inazio Azkarragaurizar Larrea



Esp.-kodea: 2015SAPL0007

## I.ERANSKINA

### PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA

**I - Enpleguari buruz**, Arrasateko Udalak, Plan honen indarraldian, programa hauek lagunduko ditu diruz:

**I - En materia de Empleo**, el Ayuntamiento de Arrasate, durante la vigencia del presente Plan, subvencionará económicamente los siguientes programas:

#### 6.- Arrasateko titulatu berrientzako beka programa

#### 6.- Programa de becas para nuevos/as titulados/as de Arrasate

- **Xedea:** Programa honen xedea da Arrasateko titulatu berriei beka ematea, ikasketak burutu ondoren praktikak egin dezaten eskualdeko enpresetan preferenteki Arrasatekoetan.
- **Udalak zer lortu nahi duen:**
  - Arrasateko titulatu berriei lehen lan esperientzia kualifikatuak
  - Bertako enpresei titulatu berrien gaitasun profesionala ezagutzeko aukera ematea.
- **Norentzat:**

2015ko urtarrilaren 1etik aurrera Arrasaten erroldatutako langabeak, Gradu, edo Master tituludunak (unibertsitate-ikasketa ofizialen antolakuntza xedatzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuan ezarritako araubideari jarraituz) edo Diplomaturako, Lizentziaturadunak, Goi-mailako lanbide-heziketako tituludunak, edo 3 Mailako Profesionaltasun Agiria burututako goi mailako lanbide heziketa ziklo batekin erlazionatua; titulu horiek atzerrian lortu badira, homologatuta egon beharko dute eskabidea egiteko

- **Objeto:** El objeto del presente programa es la concesión de becas a nuevos/as titulados/as de Arrasate con el fin de que realicen prácticas profesionales en empresas preferentemente del municipio o de la comarca de Debagoiena.
- **Efectos pretendidos:**
  - Facilitar a nuevos titulados de Arrasate experiencias
  - Posibilitar que las empresas del entorno conozcan de primera mano el potencial profesional de
- **Destinatarios:**

Personas empadronadas en Arrasate desde el 1 de enero de 2015 como mínimo, que cuenten con una Titulación de Grado, Master (según la regulación establecida en el Real Decreto 1393/2007, de 29 de octubre, por el que se establece la ordenación de las enseñanzas universitarias oficiales), o de Diplomatura, Licenciatura o Formación Profesional de Grado Superior o Certificado de Profesionalidad Nivel 3 relacionado con una Formación Profesional de Grado Superior cursada



Esp.-kodea: 2015SAPL0007

unean. Karrera amaierako proiektua egiten ari direnak ere onartuko dira, dagokion unibertsitateak hala kreditatuta. Praktikarekin lotutako titulua, duela bi urte lortutakoa izango da gehienez

anteriormente, que, en caso de haber sido obtenidos en el extranjero deberán estar homologados, en el momento de presentar la solicitud a esta convocatoria. También podrán acceder al programa estudiantes que estén realizando el proyecto de fin de carrera, debiendo ser acreditada dicha situación por la universidad correspondiente. El título que se hace valer para la realización de estas prácticas deberá haber sido obtenido no hace más de 2 años.

- **Ematekoaren modalitatea:** Norgehiagoka.
- **Zenbatekoa eta aurrekontu aplikazioa:** 50.000 €, "1.1400.480.241.30.00- Titulatu Berrien Praktikaldietako Bekak" kontu-sailaren kontura.
- **Modalidad de Concesión:** Concurrencia competitiva.
- **Importe y aplicación presupuestaria:** 50.000 € con cargo a la partida "1.1400.480.241.30.00-Titulatu Berrien Praktikaldietako Bekak"

#### 7.- Arrasateko enpresetan herriko langabeak kontratatzeako laguntza programa

#### 7.- Programa de ayudas para contratar desempleados/as de Arrasate en empresas del municipio.

- **Xedea:** Programa honen xedea da Arrasateko enpresetan herriko langabeen kontratazioak diruz lagunduntzea, 50 langile edo gutxiago dituzten Arrasateko enpresetan.
- **Udalak zer lortu nahi duen:**
  - Arrasateko langabeak kontratatzeako sustapena egita.
  - Kalitatezko enplegua bultzatzea
- **Norentzat:**
- **Objeto:** El objeto del presente programa es la concesión de subvenciones para la contratación de desempleados/as del municipio en empresas de Arrasate por empresas de Arrasate de 50 trabajadores/as o menos.
- **Efectos pretendidos:**
  - Fomentar la contratación de personas desempleadas de
  - Propiciar el empleo de calidad
- **Destinatarios:**



Esp.-kodea: 2015SAPL0007

Programa honen diru laguntzen onuradunak enpresak eta irabazi-asmorik gabeko entitateak (fundazioak, elkarteak, GKEak...), baldin eta zerga eta lan arloko betebeharrak egunean badituzte eta betekizun hauek betetzen badituzte:

a.- Enpresak lantokia Arrasaten edukitzea.

b.- Enpresak 50 langile edo gutxiago edukitzea.

c.- Kontrataturako langabeak Arrasatekoak izatea

- **Ematekoaren modalitatea:** Norgehiagoka.
- **Zenbatekoa eta aurrekontu aplikazioa:** 100.000 €, "1.1400.471.241.00.00-Langabetuen Kontratatorako Laguntzak" kontusailaren kontura.

Podrán optar a estas ayudas tanto empresas como entidades sin ánimo de lucro (fundaciones, asociaciones, ONGs...), siempre que se hallen al corriente de sus obligaciones fiscales y laborales, y reúnan estas condiciones:

a.- Estar ubicada en Arrasate.

b.- Disponer de 50 trabajadores/as o menos en plantilla

c.- Que contraten desempleados/as de Arrasate.

- **Modalidad de Concesión:** Concurrencia competitiva.
- **Importe y aplicación presupuestaria:** 100.000 € con cargo a la partida "1.1400.471.241.00.00-Langabetuen Kontratatorako Laguntzak"



Esp.-kodea: 2015SAPL0007

## II.ERANSKINA

### **AKEIKO ZABORTEGIA ITXI OSTEKO MANTENTZE-LANAK KOORDINATZEKO ARRASATEKO UDALAREN, DEBAGOIENAKO MANKOMUNITATEAREN ETA DEBABARRENEKO MANKOMUNITATEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA**

Arrasaten, 2015eko maiatzaren 14n.

#### **AGERTU DIRA**

Alde batetik, Inazio Azkarragaurizar Larrea jauna, Arrasateko Udaleko alkate-lehendakari gisa, Udalbatzaren osoko bilkuran hartutako 2015eko maiatzaren 12ko akordioaren arabera;

Bestetik, Arcadio Benítez Dávila jauna, Debabarreneko Mankomunitatearen lehendakari gisa, 2015eko martxoaren 25eko Batzar Orokorren akordioaren arabera;

Bestetik, Inazio Azkarragaurizar Larrea jauna, Debagoieneko Mankomunitatearen lehendakari gisa, 2015eko martxoaren 26ko Gobernu Juntaren akordioaren arabera.

#### **ESKU HARTZEN DUTE**

Guztiak beren karguei dagozkien eginkizunen arabera, elkarri Hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa aitortzen diote, honako aurrekari hauen arabera.

#### **AURREKARIAK**

1.- 1995eko urtearen amaieran itxi egin zen Akeiko errauskailua, eta aldi berean industria-instalazio horren ondoan dagoen Akeiko zabortegian hondakinak botatzea amaitu zen.

2.- Geroztik, hainbat jarduketa egin dira Akeiko zabortegia egoki mantentzeko, eta azkenean Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak ebazpen-proposamena igorri du zeregin horiek antolatzeke eta ingurumen-kontrola ziurtatzeko.

3.- Hitzarmen hau izenpetzen dutenek hainbat harreman izan dituzte udal-jabetzako zabortegi horren erabilera eta ustiapeneko aurrekariak aztertzeke; izan ere, sorrera konplexua izan zuen, hainbat administrazio, besteak beste hitzarmen honen sinatzaileak, izan ziren beraren erabiltzaileak, eta zabor heterogeneoak hartu zituen beren osaera eta jatorriari dagokionez.



---

Esp.-kodea: 2015SAPL0007

---

### AITORTZEN DUTE

1.- Dauden aurrekariez egindako azterketa historiko zehatzaz haratago, printzipio baliokideak partekatzen dituztela erantzukizun publikoaren arloan hondakinen eta dagozkien azpiegituren kudeaketari dagokionez, batez ere ingurumen-kudeaketari eragiten dioten gaietan, kudeaketa horren ondorio izan litezkeen inpaktuei lotuta.

2.- Bere kudeaketaren helburu gisa administrazioen arteko koordinazio eta lankidetzaren publikoaren printzipioak lehenesten dituztela, Akeiko zabortejiaren kasu berezi honetan, itxi ostean kontrol eta kalitate maila handieneko mantentze-egoera ziurtatzeko, zeregin hauek beren gain hartu eta ordaindu dituzten administrazioek orain arte egindakoaren ildotik.

3.- Halaber esku hartzen duten administrazioek aipaturiko mantentzeari dagozkion gastuen sostenimenduan erantzunkidetasun printzipioa partekatzen dutela; eta hori hitzarmen hau izenpetzen denetik aurrera mantentze-lanei lotuta sortzen diren gastu guztiei aplikatuko zaiela.

4.- Zabortejiaren sortze, erabiltze, ustiatze, kudeatze eta ixten esku hartzen duten administrazioen ardura-banaketa egiteko zailtasun ikaragarriaren aurrean, onartzen dutela egokia dela etorkizuneko ekintzak barruan antolatzea, hori hiru administrazioetako talde tekniko eta juridikoek adosturiko irizpideak errespetatuz egitea beti, eta itxi osteko kudeaketa-eskema eraginkorra zehaztea, Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-kontrolaren mende egongo dena.

5.- Kudeaketa honen iraganari eragin diezaiokeen edozein gai honela konponduko dutela: administrazio sinatzaileen artean erabaki gabetzat jo daitezkeen arazo guztiak hitzarmen honetan onarturiko irtenbideek konpontzen dituztela ulertuz, eta gerora begira administrazio guztiak behartzen dituztela baterako ahalegina egitera lehen deskribaturiko helburu komunak lortzeko.

6.- Azken batean, Akeiko zabortejiaren mantentze-lanetan eta itxi osteko kontrolean aldean ekarpena ziurtatzen dutela.

Eta hori guztiori honako akordio hauen bidez gauzatuko dute

### AKORDIOAK

#### LEHENENGOA.- EBAZPEN-PROPOSAMENA.

Arrasateko Udalak, Debagoieneko Mankomunitateak eta Debabarreneko Mankomunitateak beren adostasuna adierazten dute Hitzarmen honetatik eratorritako egokitzapenak Eusko



---

Esp.-kodea: 2015SAPL0007

---

Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren aurrean sustatzeko.

**BIGARRENA.- AKEIKO ZABORTEGIA ITXI OSTEKO MANTENTZEAREN ETA KONTROLAREN ARDURADUNA.**

Arrasateko Udalak, Debagoieneko Mankomunitateak eta Debabarreneko Mankomunitateak adostu dute Arrasateko Udala izango dela, zaborteziaren kudeatzaile den aldetik, zabortezi itxi osteko mantentze eta kontrolaren erantzule bakarra Eusko Jaurlaritzako ingurumen-agintarien aurrean.

Ondorioz, Arrasateko Udalak horretarako egokiak iruditzen zaizkion neurriak hartu eta kontratazioak eta jarduketak egingo ditu azkenean Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak ematen duen ebazpena guztiz eta erabat betetzeko.

Halaber, alde guztiek adostu dute erantzukizun hori eskudun den ingurumen-administrazioak zehaztuko duen eperako hartuko dela.

**HIRUGARRENA.- AKEIKO ZABORTEGIA ITXI OSTEKO MANTENTZE- ETA KONTROL-GASTUAK ARRASATEKO UDALAK, DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEAK ETA DEBABARRENEKO MANKOMUNITATEAK ORDAINTEA.**

Arrasateko Udalak, Debagoieneko Mankomunitateak eta Debabarreneko Mankomunitateak ordainduko dituzte Akeiko zabortezi itxi osteko mantentzeak eta kontrolak sortuko dituen gastuak ondorengo ehuneko hauen proportzioan, hiru administrazioetako zerbitzu teknikoek egokitzat joak Hitzarmen honetan aztertutako eta deskribaturiko aurrekarietarako:

- Arrasateko Udala: %20.
- Debagoieneko Mankomunitatea: %40.
- Debabarreneko Mankomunitatea: %40.

Ordainduko diren zenbatekoak hiru administrazioetako zerbitzu teknikoaren artean landu den Hitzarmen honen I. Eranskinean jasotako lanei dagozkienak dira. Finantza-kudeaketa zuzena egiteko, Arrasateko Udalak, ekitaldi bakoitzeko lehenengo hiru hilabeteetan, Debagoieneko Mankomunitateak eta Debabarreneko Mankomunitateak ordaindu beharreko zenbatekoak jakinaraziko ditu, egindako kontratazioak, Eranskineko jarduerari dagozkienak, zehaztuz, baita horietako bakoitzaren zenbatekoak ere, eta administrazio bakoitzak urtean ordaindu beharreko kopurua.

Halaber, aurreko urtean ordaindutako kopuruen likidazioaren zenbatekoa eta hortik ateratzen den emaitza adieraziko dira.



---

Esp.-kodea: 2015SAPL0007

---

Jakinarazpen horretan, Arrasateko Udalak ziurtatuko du aurreko urtean bete zirela Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak emandako ingurumen-baimenaren determinazioak.

Debagoieneko Mankomunitateak eta Debabarreneko Mankomunitateak jakinarazpena jasotzen dutenetik hilabeteko epean ordainduko dituzte dagozkien kopuruak.

**LAUGARRENA.- EBAZPENAREN DETERMINAZIOEN JARRAIPENA ETA APLIKAZIOA. BALIZKO GORABEHEREN KUDEAKETA.**

Bere zereginen betetze-eremuan Arrasateko Udalak anomalia edo gorabeheraren bat —Hitzarmen honen 1 eranskinean ezarritakoen osagarri izango diren neurri teknikoak aktibatu beharra suposatzen duena eta bere jardueri dagozkien gain beste diru-ekarpen gehigarri batzuk eskatzen dituen— detektatzen badu, premiaz deituko ditu Debagoieneko Mankomunitatea eta Debabarreneko Mankomunitatea teknikoki aztertzeko zenbait gauza: egin beharreko ekintzak; zigilatze-lanak edo/eta, hala badagokio, mantentze-lanak gaizki egitearen ondoriozko balizko erantzukizunak erreklamatzeko; sorturiko premiari erantzuteko egin beharreko ekarpenak eta horren finantzaketa (beti eta kasu guztietan Hitzarmen honetan ezarritako banaketa-irizpideak errespetatuko dituelarik).

Balizko gorabehera hauek konpontzeko, hiru administrazioak bizkor eta eraginkortasunez jardutera konprometitzen dira, eta adostuko diren ondorio teknikoak gorabehera, hartu beharreko edozein neurri Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egiaztatu beharko duela hitzartu dute.

**BOSGARRENA.-** Hitzarmen honek administrazio-izaera du, eta honen interpretazio eta garapenean herri-administrazioen arteko hitzarmenei aplikatzen zaien administrazioaren ordenamendu juridikoaren arabera jokatu dute. Bigarren sekzioari dagokionez, espresuki aplikatuko da diru-laguntzetarako indarrean dagoen araudian xedatutakoa.

Hitzarmena interpretatu eta betetzerakoan sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenaren eskumende eta erabakipean jarriko dira.

**SEIGARRENA.-** Esku hartzen duen alde bakoitzak Lankidetzak Hitzarmen honen arabera hartzen dituen konpromisoak datzekien erantzukizunak bakarrik hartuko ditu bere gain. Alde guztiek berariaz uko egiten diete beren arteko erreklamazioei Akeiko zaborteia itxi osteko kontrol eta mantentze-lanei dagozkien gaiengatik, Hitzarmen hau izenpetu aurrekoak baldin badira, baita ondorengoak badira ere, Hitzarmen honetako termino eta baldintzetatik urruntzen diren neurrian.





---

**Esp.-kodea: 2015SAPL0007**

---

**ZAZPIGARRENA.-** Hitzarmenak bere ondorioak sortuko ditu eta esku hartzen duten aldeak behartuko ditu, Ingurumen Sailak, Akeiko zabortegia itxi osteko mantentze eta kontrolaren koordinazioari dagokionez, Ebazpen irmoa ematen duenetik aurrera.

**ZORTZIGARRENA.-** Hitzarmen hau iraungiko da eskudun den ingurumen-agintaritzak Akeiko zabortegia itxi osteko kontrol eta mantentze-lanen amaierako irizpena eman ondoren.

Aldeetakoren batek ez baditu betetzen bere gain harturiko konpromisoak beste aldeek ahalmena dute horiek zorrotz betetzea eskatzeko.

Eta adostasunaren adierazgarri, Hitzarmen honen hiru ale izenpetzen dute, idazpuruan adierazitako lekuan eta datan.

**ARRASATEKO UDALA**

**DEBABARRENEKO MANKOMUNITATEA**

**Izpta.: Inazio Azkarragaurizar Larrea**

**Izpta.: Arcadio Benítez Dávila**

**DEBAGOIENeko  
MANKOMUNITATEA**

**Izpta.: Inazio Azkarragaurizar Larrea**



Esp.-kodea: 2015SAPL0007


## I ERANSKINA

### Etokizuneko gastuen kalkulua Akeiko zabortegiaren ingurumen-jarraipenean.

Ondorengo taulan Akeiko zabortegiaren ingurumen-jarraipenari atxikitako gastuak agertzen dira 2006-2015 denboraldirako. Nahiz eta lehenengo urteetan gorabehera batzuk izan, 2009. urtetik aurrera ingurumen-jarraipeneko lanak 20.000 € inguruan mantendu dira, BEZ barne.

Urtea	Lizitazio-prezioa	Esleipena	Luzapena	Enpresa
2006	23.200	21.655		SGS TECNOS
2007	24.000	22.304		SGS TECNOS
2008			23.241	SGS TECNOS
2009	24.500	20.078		ONDOAN
2010			20.239	ONDOAN
2011	22.000	19.089		ONDOAN
2012			19.478	ONDOAN
2013	23.000	20.266		ONDOAN
2014			20.301	ONDOAN
2015	22000			

**BEZ barne**



2013. urtera arte ingurumen-jarraipena IHOBek hasieran ezarritako ingurumen irizpideen arabera egin zen.



---

Esp.-kodea: 2015SAPL0007

---

2014. urtean, jarraipena Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen-proposamenean ezarritako determinazioen arabera egin da, eta horien arabera egingo dira etorkizuneko jarraipenak ere. Beraz, eta egindako jarraipenaren emaitzetan oinarrituta, ulertzen da datozen urteetan egin beharreko lanek ez dutela gastu-gehikuntzarik ekarriko; are gehiago, Eusko Jaurlaritzaren aldetik, kontuan hartzen bada parametro analitiko batzuk murrizteko eskaera, 2014ko azken txostenean sartuko dena.

Egoera normalean gerta daitezkeen aldaketa bakarrak honako hauek izan daitezke:

- **“Hondakindegian sorturiko lixibiatuen emarien kontrol eta erregistrarako gailu bat jartzeko Hautabideen Azterketa”**tik eratorriak, 2015. urtean egiteko lanen multzoan sartuta baitago.
- E.J.ko Ingurumen Sailburuordetzak emango duen behin-betiko Ebazpenean egon daitezkeenak.

2015eko martxoaren 3a

Rafa Ugarte



Esp.-kodea: 2015SAPL0007

### III.ERANSKINA

**ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN ZERRENDA**  
**2015/04/14tik 2015/05/7ra bitartekoak**

Kodea	Espedientea	Espedientearen gaia
N15/00473	2014CPOB0003	Zalduspe-Osinaga oinezko pasabidea konpontzeko lanak
N15/00474	2015ZTXI0010	Servicio de mantenimiento de instalaciones de sala de calderas de la Residencia
